

## **Bakoitzak bere fruitua**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1990-12-18: 2.

Naturak bere legeak ditu.

Sagarrondoak, sagarrak ematen ditu, eta intxaurrendoak, intxaurreak. Intxaur hauek lau ala hamalau diren ez badakizu, ametsetan zaude, edo agian kontatzen ahaztu zaizu. Intxaurrearen mamiaz, berriz: fina edo ustela den, beste arazoa duzu; zeren eta jaio, fina jaiotzen baita intxaurrea, eta usteldu, gero usteltzen da.

Herri batek ematen duen fruitua, gizakia da. Gizaki honek berez badu hizkuntza, eta norbait ahaztu bazaio, geratzen zaio beti iraganaren nostalgia mingots eta triste bat.

Hau maitasuna da.

Euskal herrian jaio den euskaldun batek ez badu bere hizkuntza maite, eta ez badu gizaki bezala bere askatasuna defendatzen, hau, badakizu, familia onenetan ere gertatzen dira desgraziak, saltzen dira hizkuntza, ama eta semeak.

Euskaldun hori ere intxaurrea duzu, noski, baina ustela.

Herrikotasunaren aurka euskaldun batzuek sentitzen dutena ez da gorrotoa. Ez dut, behintzat, sinetsi nahi. Baina aztertu zazu apur bat: nabarituko diezu beste hizkuntza eta beste herriaganako gehiegizko lotura berezi bat, eta halare, ez maitasuna, bere jaioterrirako herritasun osoa sentitzen ez duenak ezin baitu beste batenganakoa senti; ikusiko diozu saldukeriak eskaintzen dion erregaliren bat horren truke.

Zeren eta gure herriak ere salduak ematen ditu.

Ez dira asko, ez dira hamalau, baina ustelak dira.